EBAZPENA, 2024ko otsailaren 29koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita sistema teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaprobetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, eta lehenengo azterketaren data eta tokia zehazten den.

2024ko otsailaren 2ko Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen bidez onartu zen sistema teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaketa prozesuan onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (2024/02/14ko EHAA, 33. zk.).

Erreklamazioak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 28an bukatu zen. Ez da erreklamaziorik jaso epe barruan.

Ondorioz, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, egoki da izangaien behin-betiko zerrenda argitaratzea eta oinarri orokorren 11.1 puntuak zehazten duen oposizio faseko lehen ariketaren (ariketa teorikoa) data eta tokia zehaztea.

Ebazpen hau, oinarri orokorren 10.1 puntuak adierazitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Iragarki Taula Elektronikoan argitaratuko da.

Horiek horrela, Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 18. artikuluaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean agertzen den onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea.

Bigarrena.– Argitara ematea sistema teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaprobari dagokion lehenengo azterketaren data eta tokia.

- Data: 2024/04/13, larunbata.
- Tokia: 2deo. Tabakalera eraikina, 1go. solairua. Andre Zigarrogileen plaza 1, 20012 Donostia.
- Ordua: 09:30.
- Azterketaren iraupena: 2 ordu inguru.

Izangaiak NANa edo agiri baliokidea eta boligrafoa eraman beharko ditu ariketara.

Laugarrena.– Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzako Iragarki Taula Elektronikoan eta www.etxepare.eus webgunean argitaratzea.

IRENE LARRAZA AIZPURUA

Firmado digitalmente por IRENE LARRAZA AIZPURUA
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, ou=Herritar ziurtagiria - Certificado de ciudadano, cn=IRENE LARRAZA AIZPURUA, givenName=IRENE, sn=LARRAZA AIZPURUA, serialNumber=44126933F
Fecha: 2024.02.29 11:05:23 +01'00'

IRENE LARRAZA AIZPURUA.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria

ERANSKINA

Sistema teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaprobetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

– Onartutako pertsonak

| NAN | Lehen abizena | Bigarren abizena | Izena |
|---|---|---|---|
| ***7780** | Tolosa | Belza | Igor |
| ***1332** | Solla | Sampedro | Julen |
| ***2776** | Aguirre | Beguiristain | Hodei |